



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

Sesiones de órganos de gobierno colegiados Dictamen de Comisión Informativa

Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak Informazio Batzordearen Irizpena

AYT/CIP/33/2016

ORG10I0NB

Código de validación/Balidazio kodea

4Q52146U1U6E5I1K003C



Gai Orokorren eta Udalbatzarrak aztertu beharreko gaien Informazio-batzordeak 2016ko urriaren 25ean hartutako erabakiz Udalbatzarraren iritzipean jarriko da Santa Ana 3an, katastroko N9865205H zk.duen finkan dagoen eraikina, Eskolabarri S.Coop.Ltdari utzitakoa, Udal Ondasunen Inbentarioan sartzea onesteari buruzko ebazpen-proposamena. onesteari buruzko ondorengo ebazpen proposamena, organo horrek, hurrengo bilkurara bertaratzen diren udal-korporazioko kideen gehiengo osoz, gaiari buruz erabaki dezan:

“Lehenengoa.- Udal Ondasunen Inbentarioan Santa Ana 3an dagoen 1.148,28 m²ko lursaila sartzea, katastroko erreferentzia N9865205H izanik. Bere mugak ondorengoak dira: **IPARRALDETIK**, Eusko Jaurlaritzaren lurzatia, N0294402N katastroko zenbaki finkoa duena, eta Sakona 1, 2, 3 eta 4ko etxebizitza-sustapeneko orubearen zati bat, Promociones Olabarri S.L.k egikaritutakoa; **HEGOALDETIK**, Santa Ana kalea, jendearentzako eskailerak eta arrapala eta Hego-ekialdeko ertzean, gainera, U4124234X katastro-zenbaki finkoa duen udal orubea; **EKIALDETIK**, Aranburu Mallagarai familiaren landa-lurrak, landa-katastroko 2. poligonoaren 038 (a,b) eta 130 lurzati moduan identifikatutakoak; **MENDEBALDETIK** Ermuko Santa Ana kalea.

Aipaturiko lurzatian ondorengo erakina dago:

Eskolatarako erabiltzen den eraikina, hormigoi eta bistako adreiluz egina, bi solairutan banatua. Behe solairuak 450,41m²ko azalera du eta bertan ataria,

Por la Comisión Informativa de Asuntos Generales y de Pleno celebrada el día 25 de octubre de 2016, se eleva al Pleno de la Corporación para que adopte acuerdo al respecto, en la primera sesión que celebre, por mayoría de los/as miembros de la Corporación presentes en la sesión de aquélla, sobre Propuesta de resolución, si procede, sobre aprobación de la incorporación al Inventario Municipal de Bienes del inmueble sito en Santa Ana 3, finca catastral N9865205H cedido a Eskolabarri S.Coop.Ltda.

“Primero.- Aprobar la inclusión en el Inventario de Bienes municipal del terreno sito en la Calle Santa Ana nº 3, con una superficie solar de 1.148,28 m² y con referencia catastral N9865205H. Son sus linderos: **NORTE**, parcela del Gobierno Vasco, identificada con el número catastral fijo N0294402N, y en parte también con solar de la promoción de viviendas Sakona 1,2,3,4 que fue ejecutado por Promociones Olabarri S.L.; **SUR**, con calle Santa Ana, rampa y escaleras de acceso público, y además, en su vértice Sur-Este, solar del Ayuntamiento identificado con el número catastral fijo U4124234X; al **ESTE**, terrenos rústicos de la familia Aranburu Mallagaray, identificados como parcelas 038 (a,b) y 130, del polígono 2, del Catastro de Rústica, y al **OESTE**, calle Santa Ana del municipio de Ermua.

Sobre la citada parcela, se encuentra construida la siguiente Edificación:

Edificio destinado a Escuela, construcción en hormigón y ladrillo caravista, consta de dos plantas, la planta baja, con una superficie de 450,41 m², está

atondoa, galdara-gela, komunak, jangela, ikasgela bat, instalazio-gela eta goiko solairura igotzeko eskailerak daude. Lehen solairuak 566,67m²ko azalera du eta bederatzi ikasgela edo bulego ditu Iparraldean, beraien artean banaleku bat eta Hegoaldean hiru ikasgela, irakasle-gela bat, komunak eta behera jaisteko eskailera. Eskola-eraikin honen mugak ondokoak dira: **IPARRALDETIK** bera altxatua dagoen lurzatiaren gainontzekoa, eraiki gabe dagoena; **HEGOALDETIK** Santa Ana kalea eta jendearentzeko arrapala eta eskailerak; **EKIALDETIK**, bera altxatua dagoen lurzatiaren gainontzekoa, eraiki gabe dagoena eta **MENDEBALDETIK** Ermuko udalerriko Santa Ana kalea.

Deskribatutako higiezinaren Udal Ondasunen Inbentarioan jasota dago, 1.2.00017.01 zenbakiz identifikatua.

Bigarrena.- Ondasuna Jabetza Erregistroan inskribatzea, hala ezartzen baitu Toki Erakundearen Ondasunen Araudiko 36. artikulua, eta horretarako Idazkariak Udal Inbentarioan sartzeko erabakiaren ziurtagiria egingo du Erregistrora bidaltzeko”.

distribuida en porche, vestíbulo, habitación de calderas, baños, comedor, un aula y cuarto de instalaciones y escaleras de acceso a la planta superior. Tiene su acceso desde el exterior por el porche. La planta primera, tiene una superficie 566,67m², consta de nueve aulas o despachos en la parte Norte, con un distribuidor entre ellas, y tres aulas, un despacho de profesores, baños y escalera de conexión con la parte inferior en la parte Sur. Linda el edificio de Escuelas, **NORTE**, con resto de parcela sobre la que se encuentra construido libre ha quedado libre de edificación, **SUR**, con calle Santa Ana, y rampa y escaleras de acceso público, **ESTE**, con resto de parcela sobre la que se encuentra construido libre ha quedado libre de edificación, y **OESTE**, calle Santa Ana del municipio de Ermua.

El inmueble descrito se encuentra en el inventario municipal de bienes, bajo el número 1.2.00017.01.

Segundo.- Proceder a la inscripción en el Registro de la Propiedad del bien de acuerdo con lo previsto en el artículo 36 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales, para lo que se remitirá al Registro una certificación del Secretario en relación con la inclusión aprobada”.

BOZKETAREN EMAITZA

PSE-EE/PSOE: Aldekoak 5

EH Bildu: Aldekoak 2

EAJ/PNV: Aldekoak 3

PP: Aldekoak 2

RESULTADO DE LA VOTACIÓN

PSE-EE/PSOE: A favor 5

EH Bildu: A favor 2

EAJ/PNV: A favor 3

PP: A favor 2



AYUNTAMIENTO DE LA VILLA DE ERMUA
ERMUA HIRIKO UDALA

**Sesiones de órganos de gobierno colegiados
Dictamen de Comisión Informativa**

***Kide anitzeko gobernu-organoen bilerak
Informazio Batzordearen Irizpena***

AYT/CIP/33/2016

ORG10I0NB

Código de validación/*Balidazio kodea*

4Q52146U1U6E5I1K003C



Irabazi: Aldekoak 1

Irabazi: A favor 1